

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko uztaillak 6

San
Lorentzoak

Jose
Lombide

Arlutz futbito
xapelketa



Urkulu, kirolzalez beteta



JASP.

(Gazteak, baina guztiz prestatuak.)

MECA

ARRASATE
Tfnoa. 79 59 99



Clio

1.270.000 pta.tik

Garantiaren luzapenarekin.



RENAULT

Urkulura joateko ohiturarik baduzu?


Ane Ormaetxea
(Ikaslea)

Ez daukat ohiturarik. Behin edo behin joan naiz egun pasa edo atzalde pasa. Eguraldi ona egiten duenean bueltatxo bat emateko ondo dago.



Carmen Lopez
(Etxekoandrea)

Egunero etorten naiz eta buelta ematen dut. Argi ibili behar da, azken egunetan lapurretak egon dira eta. Kotxeak txarto apartatuta egoten dira.




Mikel Molina
(Ikaslea)

Ez naiz Urkulura joaten. Kirola egitera beste leku batzutura joaten naiz, trenbidera, e.a.



Juan Mari Beitia
(Pre-jubilatua)

Bai, ia egunero joaten naiz buelta ematera. Goraino kotxean igotzen dut. Buelta emateko toki polita da.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

ESKUTITZAK

¿Qué menos por mil...? Gutxienez kartelak euskaraz ipini!!!

Lotsagarria iruditu zait PAGLE elkarteak Portasoleko jaietarako diru bilketa egiteko atera duen propaganda. Ezin ukatu erakargarria izan dela eta auzoan oihartzuna sortu duela, baina baita amorrua ere. Loramendi, Portasolen... bizi garen euskaldunok ez al dugu gure jaiak euskeraz ospatzeko aukerarik? Antolatzaileei gogoratu nahi nieke herri euskaldun batean bizi garelara eta "Portasol" erdelduna Madrilen dagoela eta ez Aretxabaletan.

Ah! eta kartelak euskeraz jarri arte gure etxetik dirurik jasotzea ez behintzat espero!

Saioa Arando

Norbaitek artikulua bat idatzi edo iritzi bat azaldu gura izango balu Aretxagazetako bulegora idatzi besterik ez du egin behar.

San Juan bezperan lagun mordoa bildu zen plazan

Pasatu zen gau majikoa. Atxabaltan ere ekintza desberdinak izan ziren arratsaldean hasita, gaztetxoendako bonba japoniarrak, kaleko animazioa, San Juan sua, erromeria Txinparta taldearekin, e.a.

Egunaren azken aldera

hasi ziren aurtengo kintoak tantaia altxatzen, horrenbeste lagun erakartzeko duen ikuskizun bitxia.

Kintoek polito-polito altxatu zuten tantaia eta plazan bildutako lagunek gogoz txalotu zuten eginiko esfortzua.



Aurtengo kintoak tantaia jasotako unean

Aurten ere Arrasateko igerilekua erabili daiteke

Abuztu osoan zehar kirol etxea itxita egongo da. Hau dela eta, Kirol Etxeko bazkide guztiek Arrasateko igerilekua erabiltzeko aukera izango dute. Kontutan eduki, beharrezkoa izango dela bazkide txartela erakustea. Gogoratu 6 urtetik beherakoek derrigorrezkoa dutela txartela, horregatik lehenbailehen egitea gomendatzen da.



Naiara Akixu, 15 urtetako atxabaltarra, izan zen Gizabidea Fundazioak antolatutako lehiaketan Almeneko lehen saritua

Gizabidea Fundazioak antolatutako kartel lehiaketa

On Jose Maria Arizmendiarrietaren omenez, Gizabidea Fundazioak urtero Euskal Herriko irakaskuntza ertainetako ikasle guztiei zuzendutako lehiaketa antolatzen du. Aurtengo urtean, Lehiaketako X. edizioa anuntziatzeko, Hezibideko ikastetxeetan kartel lehiaketa bultzatu du Gizabidea Fundazioak. Ikastetxe bakoitzeko irakasleak eta Fundazioko ordezkariak osatu dute epaimahaia eta guztira bost ikastetxe izan dira parte hartu dutenak. Eskola Politeknikoa, ETEO, Almen, San Viator eta San Francisco Xabier. Ikastetxe bakoitzean hiru sari banatu dira. Ekainaren 8an egin zen kartel lehiaketaren sari banaketa Atxabaltan Hezibideko egoitzan. Almeneko sarituak hauexek izan ziren:

- 1.- Naiara Akixu
- 2.- Gaizka Garai eta Beñat Otxoa
- 3.- Mireia Olabe eta Saioa Elordui

Saritu suertatu ziren kartel guztien artean, kanpoko epaimahai batek, "Jose Mari Arizmendiarrietta X. lehiaketa" eta gizon honen omenez egingo den ekintza akademikoa anuntziatuko duen kartela aukeratu zuten izan ziren kartel guztien artean. Hautentzat, Alaitz Gonzalez eta Ainhoa Zeziaga, arrasatearrek egin zuten kartela izan zen onena. Kartel hau, irailetik aurrera Euskal Herriko ikastetxe guztietan eta gure bailarako herrietan ikusgai izango da.

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

ARETXABALETAKO
INDUSTRIALDEA, S.A.

"ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"
Telefonoa: 79 62 80
ARETXABALETA (GIPUZKOA)

MATIKUA
Taberna

Aozaratz auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekaabarren, 3
Tfnoa: 77 11 76

San Lorentzo jaiak Portasolen

Uztailean sartu gara dagoeneko. Aurten ere Portasoleko jaiak ospatuko dira uztailearen 14tik 16ra bitartean. Portasol Auzoko Gazte Lagun Elkarte, P.A.G.L.E. aritu da Portasoleko jaiak antolatzen. Aipatutako hiru egun hoietarako hainbat ekintza antolatu dituzte:

Ostiralean, hilaren 14an, arratsaldeko 6etan emango zaie hasiera jaiak **txupinazoarekin**.

6,15etan, **erraldoi eta buruhandiek txistulariekin** batera Portasoleko kaleak alaituko dituzte.

7etan, Eguzki Alde plazan **play back** lehiaketa egongo da.

8etan, auzoko tabernetatik **poteoa**.

Eta egunaz ongi bukatzeko, gaueko 11,30etan, **EGAN** taldearekin dantzaldia izango da Eguzki Alde plazan.

Larunbatean, hilaren 15ean, goizeko 10etan **diana** izango da txistulariekin.

Eguerdiko 12etan, **SOKAMUTURRA** Araba Ibilbidea kalean.

1,30etan, **poteoa** auzoko tabernetan.

Arratsaldeko 3,30etan **mus txapelketa** Eguzki Alde Elkartearen aurrekaldean.

4,30etan, **txikiendako karaokea** eta txokolatada.

7etan, **erraldoi eta buruhandiak txistulariekin**.

7,30etan **SOKAMUTURRA**

8etan, auzoko **jubilatuentzat luntxa** dohain.

8,30etan, **poteoa**.

9,30etan, Ibai Gain plazan **herri afaria** izango da **Juan Luis Lekunberri** eta bere taldeak alaituta. Ondoren, **terraza txanpainarekin**.

Gaueko 10,30etan, Erromeria izango da **ALMEN** taldearekin Eguzki Alde plazan eta **GAUPASA**.

Igandean, hilaren 16an, 10etan **meza**.

11,30etan **gaztetxoan marrazki lehiaketa**.

3,30etan, **xake lehiaketa**.

Arratsaldeko 7etan, **poteoa**.

Eta gaueko 10etan jaiak amaiera emango dien **txupinazoa** jaurtiko da.

Ondo pasau jaixek!!!



UDAKo Primerako jubenil futbol taldea

Primerako jubenilak maila bat gorago igo du

Futbol tenporada ekainaren erdialdera bukatu zen. Hala ere oraindik ere bada zer komentatu futbolaren inguruan.

Goian agertzen den UDAKo jubenil taldeak emaitza onak lortu ditu. Tenporada gogorra jokatu eta gero ligan lehen postuan joan ondoren azken partiduan Orioren kontra 2-1 galdu eta bigarren postuan bukatu zuten klasifikazioan.

Hala ere, promozioa jokatu zuten Donostiko "La Salle" taldearen kontra Zumaian eta irabazi egin zuten; 3 eta 1eko emaitzarekin. Horrela talde hau primera jubeniletik "Liga de Honor"era pasatu da, maila bat gorago hain zuzen.

Esan behar da tenporada ona egin duela UDAKo taldeak. Honen adierazgarri da mutiko gazte hauek mailatik igotzea lortu izana. Beste aldetik jubenil maila guztietatik Gipuzkoan gol gehien sartu dituen taldea berau izan da; guztira 156 gol sartu dituzte ligan. A ze gol mordoia.

Datorren urtean Liga de Honor mailan jokatuko dute; ea ba aurten moduko tenporada egiten duten.

BEIRALAN

KRISTALDEGIA
Loramendi 10
☎ 79 81 78

Berrikuntzak

MODAN
DAGOEN
GUZTIA
Iparragirre, 4 Tfnoa.79 21 24

FOTO

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Erabaki da Andramaixetako kartel lehiakeraren irabazlea

Agurtzane Elkoro izan da aurtengo Andramaixetako kartel lehiaketa irabazi duena (25.000 pezeta). Bigarren saria Mirari Altuberentzat izan da (15.000 pezeta) eta hirugarrena berriz Leire Blazquezentzat (5.000 pezeta). Zorionak.

Ekainaren 29an egin zen, aurten aurkeztutako 10 kartelen arteko aukeraketa.

Epaimahaia ondorengo herritarrek osatu dute:

- Idoia Elexpuru
- Marisol Berasaluce
- M^a Jesus Carrillo
- Aritz Larrinaga Urzelai
- Ana Esther Gomez

Gogoratu Udaletxeko ganbaran egongo direla ikusgai lehiaketara aurkeztutako kartel guztiak.

1

Hona hemen aurtengo Andramaixetako egitaraua iragarriko duen kartela, Agurtzane Elkoro izan da irabazlea "Beltz" lemapean aurkeztutako kartelarekin

Zorionak

Andra Mari Jaiak • 95



Aretxabaleta


2

Mirari Altuberen "Alaitz" lemapean aurkeztutako kartela izan da bigarrena



3

Hirugarren saritua barrez Leire Bazquezen "Kukubiltxo" lemapean aurkeztutako kartela izan da



LASAGABASTER



Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Drogaren inguruko sensibilizazio ekitaldia

Drogen okerreko erabileraren eta debekuzko trafikoaren egun internazionala pasatu den arren, Deba Garaiko, AFAPA (Arabako Proyecto Hombre-ko senide eta lagunak elkarrekin), Askagintza, Lizarra Elkartea eta Hies Ekimena elkarrekin egun hau ospatu nahian sensibilizazio ekintza antolatuta dute. Ekitaldi hau antolatzen Aretxabaletako Udalak eta Deba Bailarako Udal guztiek lagundu dute. Ekitaldiaren lema, **“Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen”** izango da.

Sensibilizazio ekintza hau Arrasaten izango da uztailaren 7an. Bertan, arratsaldeko 6,30etan KALE-JIRA egingo da, Sebero Altube plazan hasi eta Olarte, Zurgin Kantoi, Kanpantorpea, Iturbide Egoitza eta Portaloia zeharkatuz herriko plazaraino trikitilariak lagunduta.

Ondoren herriko plazan dantzariak eta bertsolariak izango dira eta Arrasateko Alkateak manifestu bat irakurriko du. Bukatzeko DUNKABA taldeak emanaldia eskainiko du eta gero GOIKOBALU Abesbatzak. Alkateak irakurriko duen manifestua ondorengoa da:

“• Adizioa eta menpekotasuna, alkohola eta beste

legez kanpoko drogarekiko ez ezik, jokua arazo erreala da gure gizartean.

• Arrazoiaren aurka lan egiteko aukera inplikatzeko dute drogamenpekotasunak, sortzen dituzten ondorioak ekiditzeko bide bakarra delako; narkotrafikoa salatuz erantzunkizun gogorra eskatuz.

• Menpekotasun kasu berriak gerta ez daitezela, prebentzio neurriak hartu behar dira, bai eta kaltetuak gizarteratzeko beharrezko diren baliabide terapeutikoak jarri, solidaritatea eta guztion laguntza bultzatuz.

• Gazteek etorkizunarekiko dituzten itxaropena sendotuko dituzten neurri sozialak bultzatu behar dira, lanaren, etxebizitzaren, kulturaren eta abarren inguruan.

• Menpekotasunarekin zerikusia duten arazoek konponbideak gizarte arlo guztien eta pertsona orok eskuhartzea eskatzen du, bakoitzak bere inguruan, etxean nahiz lanean. Drogamenpekoen alorreko aurrehartzeko, laguntza eta gizarteratzeari buruzko legearekin bat eginez, guraso, hezitzaile, sendagile, politiko eta gainerakoek, erantzunkizun handia dugu, drogak eta menpekotasunak arazo izango ez diren gizarte osasuntsua bideratuko duten jarrerak, balore eta jokaera aldaketak lortu nahi baditugu.”

1987-95 urte bitartean Arabako “Proyecto Hombre” elkarteak **Deba Garaiko 63** pertsona egon dira.

Hauetatik **23k** bukatu dute programa.

15 pertsonek programa barruan jarraitzen dute.

- Harrera etxean 4
- K. Terapeutikoan 2
- Bergizarteratzean 8
- Gaueko programan 1

Arrazoi ezberdinengatik, **8k** utzi dute programa, beste programa batzutarara pasatzeagatik, gaixotasunak, heriotza, e.a.

Programa **17** pertsonen utzi dute.

1987-95 urte bitartean Gipuzkoako “Proyecto Hombre” elkarteak barrez, **Deba Garaiko 15** pertsona egon dira.

Hauetatik **3k** bukatu dute programa.

3 pertsonek programa barruan jarraitzen dute.

- Harrera etxean 1
- K. Terapeutikoan 2
- Bergizarteratzean -
- Gaueko programan -

Arrazoi ezberdinengatik, **2k** utzi dute programa, beste programa batzutarara pasatzeagatik, gaixotasunak, heriotza, e.a.

Programa **8** pertsonen utzi dute.



AITZIBER
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

O S K A R

HARATEGIA

Loramendi,1
☎ 79 71 69

Kirola Euskalduntzeko ahaleginak

Deba Bailara

Kirolari buruzko bi liburu argitaratu dira euskaraz Deba Bailarako zenbait udalek aurrera daramaten kirola euskaraz egitasmoaren barruan.

- *Futbol entrenatzailea*, Christian Bourrel eta Maurizio Seno idazle frantsesena. Futbolari buruzko ikuspegi zabala eta pedagogikoa eskaintzen du, entrenatzaile eta monitorea edozeinentzat erabat interesgarria.

- *Kirol entrenamenduaren oinarriak*, Ina Oiartzabalek eta Aitor Zinkunegik idatzi dute. Kirol entrenamenduaren gorabeherak aztertzeko dituzte.

Liburu hauek 1993an eta 1994an sortutako bi bekei esker egin ahal izan dira.

Kirola Euskaraz egitasmoak Deba Bailarako hamahiru udal biltzen ditu. Udal bakoitzak 12 pta ordaintzen ditu biztanle bakoitzeko. 1.600.000 ptako aurrekontua du.

Euskararen berripapera
(1995eko uztaila)

Liburu argitaratuak

“Lehenago zen berandu”. Harremanen mundu txikiari begira zorrotzu du, hain zuzen ere, bere estiloa Arantxa Iturbek, eta hamahiru narrazio labur eskaini dizkigu. Eguneroko bizitzan oharkabea pasatu arren zer pentsaturik ematen duten eszenak aurkituko dituzte liburuan.

Argia
(95-07-2)

94-95 ikasturtea joan zaigu eta kurtsioan zehar ikasitakoa praktikan jarri nahi duenarentzat edota urtean zehar aukerarik izan ez duenarentzat, udarekin batera, hor datoz euskera ikasteko UDA BARNETEGIAK.

Hala ere, oraindik inor zalantzan baldin badago oporrik gabe geratuko ote den, ez dezala beldurrik izan eta anima dadila. Barnetegiak hondartza edo mendi inguruetan daudenez,

Udako barnetegiak




Leintz-Udal Euskaltegiko irakasleak

aukera ematen dute euskera ikasteaz gain ondo pasatzeko; dena ez bait da klase giroa: jaialdiak, irteerak, festak, ikastaro bereziak (dantza, kirolak, argazkilaritza, eskulanak,...) etabar ere egingo dira.

Egia esan, joan nahi duenak badauka non aukeratu, eskaintza oso zabala bait da Hego Euskal Herrian zein Iparraldean. Barnetegi hauek uztailan, abuztuan, eta irailean daude zabalik eta ikastaroei bi, hiru edo lau astetako iraupena eduki dezakete, kostua horren arabera aldatzen delarik (29.000-58.000 ptz. bitartean).

Gainera Aretxabaletako Udalak diru laguntza ematen die barnetegira doazenei, baina horretarako baldintza batzuk bete beharko dira. Dena den, informazio gehiago nahi izanez gero, bertara jo besterik ez dago.

Beraz, aurtengo oporrek zerbait diferentea eginez pasatu nahi badituzu, badakizu nora joan.



**LOGOPEDIA
ZENTRUA**

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

**T
X
I
L
A
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko
Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Erreabilitazio funtzionala

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 48 77 ARRASATE

Jose Lombide: "Enterradore lanetara ere ohitu egiten da bat"

Ez du enterradore lanetarako edozeinek balio. Hala ere, Jesus Elorza jubilatu zenean, norbaitek bere postua bete beharra zeukan eta Jose Lombide izan zen probak ondoen egin zituen gizona.


INEMetik deituta, proba batzuk egin zieten lagun talde bati. Lehen, bedarra moztu eta urarentzako bideak egitea zen. Bigarrena, lurpetik gorputz batzuk ateratzea.

Aurkeztu zirenetatik batzuk ez zuten proba amaitzerik izan. Guztiz deskonposatu gabeko gorputz bat ateratzea tokatu zitzaizen eta usain oso txarra botatzen zuen. Egia esan, Jose proba hauek egin ostean, urdaiazpiko pintxoia jatera joan zen eta ezin izan zuen jan.

Joseri ez dio beldurrik ematen kanposantuan lan egiteak. Dagoeneko 70 gorpu lurperatu ditu. "Askotan zarata asko entzuten ditut, haizea dabilenean batez ere, baina ezertaz pentsatzen hasten ez bazara ez duzu beldurrik".

Lan txarrena gorputzak ateratzea da. "Beste gorputz batzuk sartzeko tokia egin behar da eta ez dakizu han zer aurkitu behar duzun. Hezurak bakarrik aurkitzen badituzu ondo, hezurtokira botatzea besterik ez dago. Baina gorputza deskonposatu gabe baldin badago hau da txarrena. Kasu honetan gorputza karean sartu behar da".

Jose Lombidek bi urte egin ditu dagoeneko enterradore lanetan. Momentuz bere lanarekin konforme dagoela azaldu digu.



Enterratzaile lanaz gain udal-txeko beste lan batzuk ere egiten ditu Josek. Hauen artean, bedarra moztu, kanposantuaren mantentmentuaz arduratu, zuhaitzak landatu, e.a.

Kanposantua txukun eta polita edukitzea bere lana da. Baina Joseri kanposantua bere erara jartzea gustatuko litzaioke. "Sasoiko lorak jarriko nituzke kanposantuan eta jardin txikiak egingo nituzke. Hala ere, ez dut astirik, beste lan batzuk ere bidaltzen dizkirate eta."

Auzoetako kanposantuez ere arduratzen da. Lehen auzoetakoak arduratzen ziren lan honetaz. "Auzoetako kanposantuak guztiz bazterturik zeuden. Hauetako batzutan atea zabaldu ere ezin zen egin bedar luzearen

ondorioz. Orain ni arduratzen naiz bertako bedarra mozteaz eta txukun edukitzeaz".

Anekdotak baditu kontatzeko, "egun batetan nitxo batetan zuloa egiten ari zela, nitxotik irtetzen hasi eta emakume batek ikusi zuenean susto galanta hartu zuen."

Ez da ez edonork egin dezakeen lana. Josek meritua dauka. Berak ere garbi azaldu digu, kanpoan lan egitera ohitua dagoen eta denetarik ikusi duen pertsona izan behar dela horrelako lan bat egiteko.

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA



IBARRA

ESTANKOIA

Tabakoa eta ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



KELER

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea



El León


Industrialdean
Tfnoa: 79 60 65

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51



MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A
Tfnoa: 79 71 55

Aktibitatearen erreinuan

Urtean zehar makina bat lagun joaten da Urkulura. Pasiatzeko, kirola egiteko, eta denbora pasatzeko toki zoragarria da. Hori bai, batzutan esan beharrik ez dago jendez eta kotxez gainezka egoten dela, eguraldi ona egiten duen astebukaeretan batez ere.

Oso leku egokia da, heldu ta gazte, haundi ta txikiren gozamenerako.



Udaberrian hasten da aktibitatea Urkulun

Kirola egitera gero eta kirolzale gehiago hurbiltzen da Urkulura. Horra hor, aniketan egitera, bizikletan ibiltzera, pasiatzera, patinetan eta zaldian ibiltzera. Uda partean, piraguan ibiltzeko aukera ere egoten da, udalak antolatzen dituen ihardueren artean. Honetaz gain, Kurtzebarritik parapentez botatzen direnek ere Urkulun bukatzen dute euren hegaldia. Bitxia da txori kolore bizidun hauek Kurtzebarri menditik behera jeisten ikustea. Lagun asko biltzen da behean azken hauek lurra nola hartzen duten ikusteko.

Mendira joateko ere, aukera zabala eskaintzen du Urkuluk, Hiru Haitzera, Degurixara, e.a. Pentsatzen hasi ezkeru ekintza desberdin mordoak dira, toki berean egin ditzakegunak.

*Baina egia esan,
horrenbeste aukera
eskaintzen digun
inguruari, ez diogu
sarritan merezi duen
tratua ematen. Hain polita
daukagun ingurua
maitatzen eta errespetatzen
ikasi beharko
genuke*


Bi alderdi

Duela urte batzuk Urkuluko urtegia egin zenean, nork esango zuen horrelako jendetza erakarri behar zuenik. Aktibitatearen bizilekua ematen du. Udaberri partera batez ere hasten da aktibitatea Urkulun. Apirila eta maiatzean biltzen da Urkulun jende kopuru gehien. Uda partera lagun kopurua gutxitu egiten da, jendeak eguraldi onarekin kanpora jotzen du eta. Hau ikustea noski pozgarria da, kirola bere neurrian egitea ona da guztiondako eta.

Gaur egun ordea, dena ez da hain polita. Astebukaeretan "domingero" ugari hurbiltzen da Urkulura. Kotxez betetzen da eta ataskoak ere sortzen dira kotxeak behar ez diren tokian uzten direlako. Debebatutako ekintzak ere ikusten dira, jendea kotxeak garbitzen, bainu bat hartzen, e.a. Errespeto falta ete da?



Pasiatzeko toki egokia da Urkulu



Patinetan lagun asko hurbiltzen da

Lehen eta orain


Urkulura joan eta Juan Luis Iturbe atxabaltarra topatu dugu bertan pasietan. Juan Luis ia egunero joaten da Urkulura. Pasiarako leku egokia dela dio, "7 Km lautada lautadan egin daitezke eta gorantz ezin duenak igo, hementxe dauka toki aproposa ibiltzeko".

Lehen takarraran ere etortzen zen baina azkenaldian pasiatzen bakarrik.

Jose Luis gaztetan Urkulun makina bat ibilitakoa da. Horregatik ondo akordatzen da lehenagoko Urkuluko parajea nolakoa zen. "Urtegia egin aurretik dena zelaia zen. Sasiak ziren partzela desberdinak bereizten zituztenak". Urtegia egiteko 22 baserri inguru bota zirela ere gogoan du. "Baserri batzuk oso ederrak ziren gainera".

Guzti honez gain Urbaltzeko errekan amurruinak, angilak eta kangrejoak egoten zireneko gaiak ere gogoratzen ditu. "Gu Urbaltzeko erreka joaten ginen. Han 3 potzu zeuden, batean ur epela egoten zen eta beste batean ur oso hotza. Errekan arrainak

Lehen kangrejoak, amurruinak eta angilak egoten ziren Urbaltzeko errekan



Horrelako ekintzak ere sarri ikusten dira Urkulun


harrapatzen aritzen ginen. Bueltan, etxerako bidean, Koruetako Araneko tabernan tragu bat hartu eta etxera.

Orain ordea Urkulun ez da kangrejorik gelditzen, eta arrain gorriak ere gero eta gutxiago ikusten dira. Hala ere, banaka batzuk ikusten dira Urkuluko bazterretan arrantzan oraindik ere.

Kanpotar asko

Urtegia egin zenetik lagun askok ezagutu du Urkulu. Egia da lehen hain ezaguna ez zena. Baserritarrek ere ez dute lehen zuten lasaitasuna. Baina paraje politak jendea erakarten du. Dagoeneko makina bat kanpotar pasatuko zen Urkulutik. Turismoa izatea ez da gauza txarra, azken hauek etxekoak errespetatzen eta ingurua zegoen bezala uzten duten bitartean behintzat.

Errespetu kontu hau norberarengandik hasi behar da. Gu errespetatuko gaituzte guk ere gure ingurukoak errespetatzen ditugun heinean.



Mendiko bizikletan lagun askok ematen dio buelta urtegiari

Canal + eko torneoan gipuzkoarrak txapeldun

Oraindik oso gaztea dugu Akaitz baina hala ere Canal +eko **Futbol 7** txapelketa jokatzeko aukera izan du. Eta irabazi egin dute gainera.

Akaitzek honela kontatu digu bere esperientzia. Almeneko **Futbol 7** mailan jokatzeko duten mutiko batzuri Zubietara proba batzuk egitera joateko esan zieten. Hoietako bat Akaitz zen.

Zubietan, proba moduan partidu bat jokatu zuten. Ondoren bigarren deialdi bat ere egin zieten baina oraingo honetan Almenetik Akaitz bakarrik joan zen.

Gipuzkoako jokalariekin ekipo bat osatu zuten eta joan den ekainaren 22an joan ziren Madrilera Canal +eko torneooa jokatzeko.

Madrilgo Brunete herrian eta Billabiciosa de Odonen jokatu

zituzten partiduak. España osoko 20 ekipo joan ziren guztira, hoi artean talde gipuzkoarra. Eguakotxean 4 partidu jokatu zituzten, laurak irabazi eta semifinaletara pasatu zen talde gipuzkoarra. Zapatuan, semifinala jokatu zuten Albaceteren aurka eta hau ere irabazi egin zuten. Horrela heldu ziren finalera eta Celta taldearen aurka tokatu zitzaizen jokatzeko. Izerdi haundiak bota ostean irabazi egin zuten 2 eta 4ko emaitzarekin eta torneoan garaile atera ziren.

Akaitzek defentsan jokatu zuen partidu guztietan. Berak normalki erdian jokatzeko badu ere.

Esperientzia polita

Oso ondo pasatu duela esan digu Akaitzek. *"Ingurukoa ni bakarrik nintzen, gertuko laguna antzularra nuen. Azkenean lagun*



Akaitz Garai, 12 urtetako atxabaltarra joan zen torneora

mordoa egin ditut eta oso esperientzia polita izan da."

Partidu guztiak bukatu ondoren, hainbat komunikabideetan ere izan ziren, Canal + eta Cadena "SER"en esaterako.

Dorleta Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
ARETXABALETA

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

ERREKABARREN MERKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN ZAPATA DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINKETA 79 80 90
- MIREIA ARRAIDEGIA 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia
Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

27 talde Arlutz futbito txapelketan

Uda aldean kirola izaten da protagonista nagusia. Azken urteotan Arlutz futbito txapelketa antolatu izan da eta arrakasta handia izan du. Esan behar da azken bi urteetan Arlutz tabernak antolatu duela txapelketa.

Bai batzuendako, bertan jolas-teko aukera dutelako eta baita ikusle moduan egoten direnendako ere ondo etorten da horrelako txapelketa bat. Denbora non pasatu behintzat izaten dute askok.

Dagoeneko hasita dago Arlutz futbito txapelketa jokaketan eta esan behar da talde asko apuntatu dela aurtengo urterako. Guztira 27 talde arituko dira lehian, iaz baino bi talde gehiago. Talde guztiak hiru multzotan banatuta egongo dira eta multzo bakoitzean 9 ekipo daude.

Neurketak egunero jokaketan dira, astelehenetik zapatara bitartean, 6ak laurden gutxitatik 9ak artean. Domeketan ez da partidurik jokatu.

Uztailak 20ra arte bata bestearen kontra jokatzen arituko



Uztailan zehar egunero hiru partidu jokatuko dira Arlutz osteko kantxan

dira. Orduan erabakiko da, lortutako emaitzen arabera multzo bakoitzetik ze bi talde klasifikatuko diren final laurdenetarako. Uztailaren 24an gauzak aldatzen ez badira behintzat final laurdenak izango ditugu

eta 25ean osteran, semifinalak jokatuko dira. Hilaren 26an finalak ikusteko aukera izango dugu. Txapelketako bi talde onenak izango ditugu elkarren aurka lehian eta orduan erabakiko da txapelketa nor den.

A Multzoa


- 1.-Surrustada
- 2.-Luis Eceiza B
- 3.-D.D.K.
- 4.-Tilford
- 5.-Hijos del agobio
- 6.-Itxoiten
- 7.-Betrayen
- 8.-Buebos
- 9.-Jul and jul

B Multzoa

- 1.-Palidrum
- 2.-Cekkojazo
- 3.-Anorthosis
- 4.-YA-TA
- 5.-Pit-Pig
- 6.-Naranja Mecanica
- 7.-Imperioso
- 8.-Otxoatarrak
- 9.-Aizpun bila

C Multzoa


- 1.-Eztanda egin arte
- 2.-Orlando piratas
- 3.-Ferenbarous
- 4.-Peña Zurito
- 5.-Tio Pepe
- 6.-Kamasutra
- 7.-Pitotxas calientes
- 8.-C.B.B 23
- 9.-Esteaua de Urkulu



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF

Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

Udaleku irekiak

Umeek hartu dute udako atsedeen luzea. Baina aurten ere Ortzadar atsedeen taldearekin uztaila ondo pasatu dezakete gaztetxoenek. Bigarren urtea da, Ortzadarrek bere kabuz udalekuak antolatzen dituenak.

Udako ekintzak urtean zehar Ortzadarrek eginikoaren jarraipena izaten dira. Ortzadarrek urtean zehar beste ekintza batzuk ere egiten ditu: kabalgata, pin-era irteera eta zapaturu zapaturu umeekin ekintzak.

Aurtengo urtean, 3 urtetatik 14 urte bitarteko 200 ume inguru apuntatu dira udaleku irekietan eta hauekin 28 monitore arituko dira.

Udaleku irekien helburuen artean, umeak dibertitzea, euskararen erabilera areagotzea, ingurugiroarekiko errespetua lantzea, partaideen arteko harremanak sendotzea, e.a. dira.

Dena dela, umeek une zoragarriak igarotzea eta gurasoen hutsunea ez somatzea ere oso garrantzitsua da. Ea aurten ere helburu hauek lortzen dituzten eta udaleku atseginak izaten diren guztientzat.



Uztailaren 3tik 22ra bitartean, herriko 200 ume inguru arituko dira Ortzadarrekin udaleku irekietan.

Egingo dituzten ekintzen artean, jokuak, Opakuara kanpinean irteera, egun osoko irteerak, kostaldera irteera, egun bereziak (San Ferminak), e.a. izango dira. Hori bai, urtero moduan ekintza barriak eta originalak egiten saiatuko dira.

Oharra: Ortzadar atsedeen taldeak lokal barria izango du hemendik aurrera. Lokal barria plazan dago baina zineko atearen ondoan.

Hortz klinika

Imanol Arrazola
Otxoa
Mediku-Odontologoa
Col. 405

Otalora 18 - 1.º D
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tf: 79 93 55

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

“HERRASTI” AKEITA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

Artano Taberna

Herriko Eparantza
ARETXABALETA

ARBULO HARATEGIA

Santa Kurt, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

MARI-MERKE

.....
Ipuinak eta liburuak
.....
Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA



AZKENA TABERNA

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57



San kristobalak

Sasoian sasoikoa jartzen ahalegintzen gara. Jaiak ditugu protagonista uda garai honetan. Goian agertzen den argazki hau, San Kristobaletan, Larrinoko jaietan, ateratako argazkia dugu. Uztailaren 10ean ospatzen dira San Kristobalak Larrinon, eta gaur egun auzoetako jaiak indarra galdu badute ere, garai batetan jai giro politean ospatzen ziren.

San Kristobaletan esaterako, Larrinoko baserrietan, goizean goiz jaiki eta oilo salda egiten zen. Gonbidatu asko etorten zen kanpotik salda hartzera. 11ak aldera, meza egoten zen. Ostean, bazkal aurretik soinujoleak soinua jotzen zuen eta ondoren mahaian jarri eta bapo bapo bazkaltzeko ordua iristen zen. Noski, etxeoandreek bazkari ederra preparatuta izaten zuten ordurako; baserriko oilaskoa eta okela gixatua eta postrerako aldiz gazta errea. Dena etxekoa.

Tripa bete-bete egin ondoren, arratsaldean soinua egoten zen berriz eta ilunkaran egunari amaiera polita emateko erromeria.

Garai hartako, argazkilari eta soinujoleak kanpotik etorritakoak ziren normalean. : Orduan, erretratu makina ez zuen edozeinek eukitzen! Soinujoleak baserri batetan bazkaltzen zuen, familiako edozeinek bezala. Aspaldiko kontua alajaina! Argazki honetan agertzen diren guztiek kontatuko lituzkete ba makina bat!

Zutik, ezkerretik hasita: **Juan Etxebarria, Antoni Lasagabaster, Eugeni Etxebarria, Juanita Arenaza, Jose Mari Etxebarria, Bicenta Idigoras, Matilde Bengoa, Santi Bengoa, Ines Iarza, (ezezaguna), Jesusa Iarza, (ezezaguna).**

Jarrita eta belauniko: **Tomas Otxoa (txistularia), Loentxo, Bixente (soinujolea), Mari Angela Etxebarria, Timoteo Idigoras, Juli Idigoras, Mari Bengoa, Jose Luis Txintxurreta, Luisito.**

Erdiko kalea fitxatuta



J.J. Aretxaga

San Mames barririk ez dugu eskaketan, tribuna kurioso bat baino ez. Euria denean euria delako eta eguzkia denean eguzkiagatik; baina Atxabaltan ez dago futbol partiduak trankil ikusterik. Izan be, datorren urtera begira preferenteko taldea majo indartu dute. **Alberto Garro** eta **Luis Mari Madinabeitia** etxera datoz barriro be. Horreitzaz aparte, Aloñako **Unamuno** eta Mondragoeko **Kepa Azkue** be fitxatu dituzte. Bueno, eta eskatzea libre denez, jokalariondako bestuario barriak lehenbailehen egitea ez dut uste larregi eskatzea denik. Beste hau, barrez, ezingo dute preferenteko ekiporako fitxatu; pena da baina. Eskoriatzan, taldeko jokalarari onenarentzako saria emun diote **Eider Zabalari**.

Honeik be, deskuidatu ezkerro, kanpokoren batek fitxatuko dizkigu. **Gaztetxoan Akordeoi Orkestrak**, Azpeitiko Musika Eskolakoekin batera, kontzertu edarra eskaini zuen Urrestillako jaietan ekainaren 25ean. Autobuskada fan ei zen hemendik eta bertakoek ziotenez Sinberguentzako zubiko inguruak atxabaltarrez beteta zeuden. Jo duten lekuetan arrakasta haundia lortu dute eta itxura denez, leku askotatik deitu diete kontzertuak emuteko. Lana eta talentua nahastu ezkerro horra hor emaitza.

Coprecik lortu dituen emaitzak be ez dira zelahalakoak. Azkenaldian enpresa haundituaz eta zabalduaz joan da. Fan zen martizenean "Principe Felipe" saria jaso zuen bere kalitate industrialagatik.

Kalitate industrialala ezin ba elizako kontuekin lotu. San Pedro egunean **Ramon Elgoro** abade egin zen. Lehenengo meza Donostian eman zuen eta fan zen domekan, barrez, Aretxabaletan.

Sortu dituen espektatibei erantzunez, **unibertsitateak kongresua** antolatu gura du gure herrian; gaia: erdiko kaleko obrak.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Heziketa Berezia (Educación Especial) ikasi duen ikasleak lana egingo luke atzeratu edo heziketa arazoak dituzten haurrei laguntzen. Deitu, (943) 79 52 97 telefonora jan orduetan edo gauzez.
- REMeko klase partikularrak emango dituen norbait behar da. Deitu 3rak aldera, 79 48 38 telefonora.

ETXEBIZITZA

- Pisu bat salgai dago Lausita auzoan, 2. zenbakia. Telefonoa ondorengoa da: 79 85 68
- Garaje bat alokatzen da, Mitarte 11n. Intere-satuak deitu 79 47 62 telefonora.
- Neska batek pisu bat alokatu gura du Atxabaltan. Bere telefonoa ondorengoa da: 79 49 70

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kaleruntza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kaleran dago. Telefonoa: 79 01 17

- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.


Arantzazuko nobenarako, emakume jubilatut batek logela konpartitzeko beste emakume bat behar du. Intere-satuak deitu, 79 10 06 telefonora.

SALMENTA

- Sukaldeko altzariak (ekonomika eta guzti) eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean eta merke. 79 01 66 (eguerdian eta gauzez, Arantzazu)

Mikel Lopez

“Portasoleko jaietara jendea etor dadin animatzen dugu”



San Lorentzoak uztailaren 14, 15 eta 16an ospatuko dira aurten. Hori dela eta jai hauen antolatzaileetarikoa batengana jo dugu Mikelengana hain zuzen ere.

• Nola konpondu zarete Portasoleko jaiak antolatzeko?

15 lagun ibili gara antolaketa lanetan. Hiru taldetan banatu gara, publizitateaz eta dirua batzeaz arduratu dira batzuk, programa egiteaz besteak eta hirugarren taldea txoznetaz.

• Dirua nondik lortu duzue?

Bizilagunek, komertzio eta tabernek, enpresek, udaletxeak eman digute dirua. Honez gain txoznatik aterako dugu zati handi bat.

• Zein izango da jaietako ekintza bereziena?

Sokamuturra eta ekintza barri bezala karaokea.

• Zer mezu bidaliko zenieke herritarrei?

Jaietara hurbil daitezela trago bat bota eta ahalik eta ondoen pasatzera.

• Etxeko logela apainduta daukazu?

Gutxi.

• Nora joango zara oporretan?

Oingoiz inora.

• Dirua edukita nora joatea gustatuko litzaizuke?

Marruekosera

• Eguzkia hartzea gustatzen zaizu?

Bai.

• Non egiten duzu lan?

Azken Bazterren ,Udalekuetan eta Profesionaleko tabernan.

• Neskalgunik baduzu?

Ez.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Lotsabako bat naiz.

• Juergista handia ala ez...

Oso handia, larregikoa.

• Bazkal ostean kaferik hartzen duzu?

Bai, bi.

• Lo asko edo gutxi egitekoa zara?

Gutxi.

• Eguneko momenturik onena?

Gaua.

• Beldurra zeri?


Ezerri.

• Gustoko duzun abeslari bat...

Aute.

• Zure afizio bat...

Gazteekin lan egitea.



Iñaki Iturri dugu aurreko alean saritu suertatu zena.

On egin!!!

Beheko galdera ondo erantzun eta saritu suertatzen denak, **Muruamendiaratz** gozotegiak oparitutako **tarta** goxo bat irabaziko du.

Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan egon beharko dute, datorren eguna baino lehen. Azkar ibili eta ez ahaztu idaztea.

Gozotegia

Izozkitegia

Muruamendiaratz

Durana, 2- Tfnoa: 79 07 88
ARETXABALETA



Nork irabazi du Andramai-xetako kartel lehiaketa?

***Aurreko aleko erantzuna “29 urte” zen.**

Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Uztailak 9

ERAKUSKETA

Ekainaren 30tik uztailaren 9a arte **kirol argazkien erakusketa** egongo da ikusgai kultur etxean.

Uztailak 21, 22, 23

SANTA MARINA AUZOKO JAIAK

Uztailak 23 domeka

KONTZERTUA

Udal Musika Bandaren Bandaren kalejira eta kontzertua.

Uztailak 24 astelehena

BIDEO PROIEKZIOA

Arteari buruzko bideo proiektzioa izango da Kultur Etxean arratsaldeko 7etan.

Uztailak 25 martizena

BASALGO AUZOKO JAIAK
Santiago jaiak.

OÑATI




Uztailak 22

NAZIOARTEKO DANTZA JAILDIA

Gaueko 10,30etan **Nazioarteko dantza jaialdia** egongo da Amaia Antzokian. Mejlkoko Companía de la Universidad de Colima eskainiko du dantzaldia.

ARRASATE



Uztailak 7

DROGEN INGURUKO SENSIBILIZAZIO EKITALDIA

"Ikas dezagun menpekotasunik gabe bizitzen"

lemapean drogen okerreko erabilera eta trafikoaren kontrako ekitaldia egingo da Arrasaten. Antolatzaileak Deba Bailarako elkarte desberdinak dira: AFAPA, Askagintza, Lizarra Elkartea eta Hies Ekimena. Bertan arratsaldeko 7,30etan Sebero Plazan hasita **kalejira** egingo da. Ondoren, plazan **dantzariak, bertsolariak**, alkateak irakurritako manifestua, **Dunbaka** taldea eta **Goikobaluren** emanaldia izango dira.

Udara begira Arrasateko AED Elkartek auzolandegiak antolatu ditu. Udaran lan eginez ondo pasatzeko eta euskararen alde lan egiteko aukera ona da.

Auzolandegi bat **Baigorriin-Behenafarroan** izango da. Basaizea Kultur Elkartek duen egoitza haunditzea eta dantzariendako entsaiu lekuak egokitzea da bertan egin beharko den lana. Goizetik lan egin beharko da baina arratsaldea libre egongo da inguruko herriak ezagutzeko, Baigorri, Irulegi, Banko, Donibane Garazi, e.a. Egonaldia, **uztailaren 16tik 30era** izango da.

Beste auzolandegi bat, **Garaion-Araban** antolatu du AEDk. Goizez, AEDk eta TXATXILIPURDIk duten aterpetxea konponduko da bertan zenbait obra eginez. Arratsaldez, mendira, kirola, igeriketa, e.a.

Egonaldia **abuztuaren 16tik 30era** bitartekoa da.

Goizez lana egingo da eta arratsaldez beti jai hartuko da. 18 urtetik gora izan behar dira. Matrikula barrez, euskera elkarteetako bazkideentzat 15.000 pezetakoa da eta bazkide ez direnentzat 16.000 pezetakoa. Plazak mugatuak dira eta informazio gehiago gura izan ezker, 77 12 28 telefonora deitu behar da.

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gorrolegia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Milurte, 1 - Tfno. 77 00 81

*Aretxabaleta
Obrador Propio*

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

**Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA**

ARETXABALETA



Uztailak 9 domeka

MARGO LEHIAKETA

Aretxabaletako 9. margo lehiaketa.

Gaia, Aretxabaleta eta bere ingurua izango da. Gura duenak parte hartu dezake eta teknika librea izango da. Egin behar diren lanak goizeko 9etatik 11etara bitartean sinatuko dira. Epaimahaiaren erabakia arratsaldeko 7etan emango da. Ondoren sari banaketa Udaletxeko erakustokian izango da. Informazio gehiagorako deitu 79 01 05 telefonora.

Uztailak 9 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Sasiola>Lastur-Itziar-Deba-Elgoibar-Aretxabaleta. Guztira 101 Km. egingo dituzte irteera honetan zikloturistek. Goizeko 8etan irtingo dute Zariaia kaletik.

MENDI IRTEERA

Zariaia M.T, kostaldera egingo du irteera.

Uztailak 10 astelehena

SAN KRISTOBALAK LARRINO AUZOAN

ERAKUSKETA

Udaletxeko ganbaran Andra Mari kartel lehiaketan aurkeztutako kartelak eta IX. Margo lehiaketaren erakustokian eginiko pintura lanak egongo dira ikusgai uztailaren 21a arte.

Uztailak 16 domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Narbaja-Egino-Olagutia-Urbasako kanping-a-Olagutia-Egino-Narbaja-Aretxabaleta. Guztira 125 Km. egingo dituzte eta goizeko 8etan irtingo dute Zariaia kaletik.

Uztailak 14, 15, 16

PORTASOLEN, SAN LORENTZOAK

Ikus egitarau berezia.

Loramendi K.E.ko **Tril Emakume Taldeak** datorren uztailaren 3tik San Migelak arte **euskal dantza ikastaroa** antolatu du. Erakutsiko diren dantzak, **fandangoa, arin-arina, eta Beinke Loramendi dantza herrikoia** izango dira. Apuntatzeko jo Loramendiko lokalera lehenbailehen.



Tril emakume taldeak antolatuta dantza ikastaroa egongo da

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarteak 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarteak 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarteak 79 33 99
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15

79 34 28

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

BEHERAPENAK!

**UNITED COLORS
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE